

## Mad Men


**P**adrón kidearen lehenengo ttakunak (*Medium abaltsuak*) ustekabean harripatu nau, izenburua irakurri eta zera etorri zaidalako burura: *Medium* telesaila. Horrek nire telesail-filiaren –obsesioaren?– neurria eman dit, eta neure buruari onartu behar izan diot hala dela, asko gustatzen zaizkidala telesailak eta ez dudala zertan lotsatu behar. Mundu akademikoak ere lanak izan zituen telebistarako egindako fikzioa zinearen maila berean aztertzen hasteko. Gaur egun, *Desperate Housewives* edo *Sex and the City* analisi-objektu nahiz liburukote burutsuen protagonista bihurtu dira, eta eremu anglosaxoian Buffy Studies deritzan adar bat existitzen da, *Buffy the Vampire Slayer* telesailari espresuki dedikatuta (antza denez Buffy pertsonaia gakoa da XXI. mendeko feminismoaren garapena ulertzeko).

Telesailen urte aro batean bizi garela aktoreengan ere ikus daiteke: garai batean Hollywoodeko izarrek telebista erdeinatzen zuten moduan, gaur egun Joseph Fiennes-ek, Patricia Arquette-ek edo Tim Roth-ek zoriontsu ematen dute telesail bako protagonista gisa.

Ni, beste asko bezala, *CSI Las Vegas* programarekin (ahaztu ondorengo frankiziak: *New York* eta batez ere *Miami* eramangaitzak dira) hasi nintzen seriooki telesailatara zaletzen. Orduetik ia hamar urte joan dira, eta gozamen ordu ugari etxeko sofan.

Ez da edozer gauza irensten dudala: gorrotagarriak iruditzen zaizkit *Grey's Anatomy*ko pertsonaia guztiak. Banpiroen telesailak ere (oso modan azken boladan) ez didate ezer esaten. *Heroes* bete ez zuen promesa batekin hasi zen.

Aldiz, maite dut *House* eta *Californication* eta *Dexter* eta, kostatu bazitzaidan ere, *Lost*ekin zoratuta nago.



Katixa Agirre

Urkiza

Padrón

Nire azken deskubrimenduak ez dauka irla batean galduta dagoen tribu globalizatuarekin zerikusirik. *Mad Men* izena dauka telesailak, eta Amerikako Estatu Batuetan 2007an estreinatu izanagatik gure telebistetan oso zaila izan da kapituluak jarraitzea eta nik behintzat Interneti esker ikusi dut lehenengo denboraldia.

*Lost*ekin zerikusirik ez duela diot auskalo nongo irla batean kokatuta egon beharrean irla sobera ezagun batean garatzen delako istorio osoa: Manhattanen. Irla galduan korear, eskoziar, irakiar eta frantziarrak daude, eta beren hizkuntzak etengabe nahasten dira. *Mad Men*en ordea dena da homogeneous, itxuraz behintzat: traje bera daramate gizonak eta otzanak dira emakumeak. Denboran barrena jauziak eman beharrean, *Mad Men*en oso argi dago

kokapen kronologikoa: 60ko hamarkadaren hasieran gaude eta etengabe azpimarratzen da hori (lehenengo denboraldian Nixon Kennedyrekin lehiatzeko prestatzen ari da).

Baina desberdintasun nagusia narrazioaren erritmoan datza. *Lost*en kapitulu bat arnasestuka bukatu ohi du ikusleak, hartz polar, denborajauzi eta bunker sekretuen deskubrimenduen kariatara. *Mad Men*en berriz protagonistak isilik eta pentsakor ikusten

ditugu maiz, eta begirada batek elkarriketa azido batek baino gehiago adierazten du. Madison hiribideko publizitate-agentzia bateko langileak dira telesaileko pertsonaiak. Emakumeek publizista hauen emazte, maitale edo idazkari rola betetzen dute. Gauza bakar batek bateratzen ditu emakumeak eta gizonak 60ko hamarkadako New York honetan: denek erretzen dute etengabe. Publizitate langintzari buruz ikasten dena ez da telesail honetako alderdirik interesgarriena, baina horrela aitzakia ezin hobe daukat Publizitateko nire ikasleei kapituluren bat edo beste ipintzeko. ■

Padrónen ttakunak... (...) nire telesail-filiaren  
–obsesioaren?– neurria eman dit, eta neure  
buruari onartu behar izan diot hala dela,  
asko gustatzen zaizkidala telesailak  
eta ez dudala zertan lotsatu behar